**Espedientea: OT--002/16-PTP-A - BALMASEDA-ZALLAKO EREMU FUNTZIONALEKO LURRALDEA (ENKARTERRIAK**

**Balamseda-Zallako Eremu Puntzionalaren Zatiko Planaren aldaketa (Enkarterriak)**

TOMÁS ORALLO QUIROGAK, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO LURRALDE ANTOLAMENDURAKO BATZORDEAREN IDAZKARIAK

**HONAKO HAU ZIURTATZEN DUT:** Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordean, martxoaren 16an, 1/2016 Osoko Bilkuran, besteak beste, honako erabaki hau hartu zuten, aho batez, kideen gehiengo osoa eratzen zuten bertaratutakoek:

"I.- Hasierako onespenaren aurretik, aldeko txostena ematea "Balmaseda-Zalla (Encartaciones) Eremu Funtzionaleko Lurralde Plan Partzialaren aldaketa" espedienteari, lurralde-plan partzialean eremu funtzionaleko paisaiaren zehaztapenak sartu ahal izateko, Lurralde Antolamenduko maiatzaren 31ko 4/1990 Legearen 13.5 artikuluak, Lurralde Antolamenduaren Gidalerroen, Lurralde Plan Partzialen eta Lurralde Plan Sektorialen funtsezkoak ez diren aldaketak onartzeko prozedura arautzen duen irailaren 9ko 206/2003 Dekretuaren 4.3 artikuluak eta Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde-antolamenduan paisaia babestu, kudeatu eta antolatzearen gaineko ekainaren 3ko 90/2014 Dekretuaren 5 artikuluak ezarritakoari jarraikiz.

II.- Txosten hau Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburuari helaraztea, 4/1990 Legean eta 206/2003 Dekretuan ezarritakoarekin bat, plan hori hasiera batean onetsi dezan, eta xedapen horietan aurreikusten diren jendaurreko informaziorako eta entzunaldirako izapideak aurrera eraman ditzan.

**III.-** Espediente hau behin betiko onartzeko, eskumena duen organoari honako hauek emandako txostenak

**Expediente: OT--002/16-PTP-A ÁREA FUNCIONAL DE BALMASEDA-ZALLA (ENCARTACIONES)**

**Modificación Plan Territorial Parcial del Área Funcional de Balmaseda-Zalla (Encartaciones)**

TOMÁS ORALLO QUIROGA, SECRETARIO DE LA COMISIÓN DE ORDENACIÓN DEL TERRITORIO DEL PAÍS VASCO.

**CERTIFICO** que en la Sesión 1/2016 del Pleno de la Comisión de Ordenación del Territorio del País Vasco, celebrada el día 16 de marzo, se adoptó, entre otros, por unanimidad de los asistentes que conformaban la mayoría absoluta de sus miembros, los siguientes acuerdos:

"I.- Informar favorablemente con carácter previo a la aprobación inicial la Modificación del Plan Territorial Parcial del Área Funcional de Balmaseda-Zalla (Encartaciones) para introducir las Determinaciones del Paisaje", de acuerdo con lo señalado en el artículo 13.5 de la Ley 4/1990, de Ordenación del Territorio del País Vasco, en el art. 4.3 del Decreto 206/2003, de 9 de septiembre, por el que se regula el procedimiento para la aprobación de las modificaciones no sustanciales de las Directrices de Ordenación Territorial, Planes Territoriales Parciales y Planes Territoriales Sectoriales y en el art. 5 del Decreto 90/2014, de 3 de junio, sobre protección, gestión y ordenación del paisaje en la ordenación del territorio de la CAPV..

II.- Elevar este informe a la Consejera de Medio Ambiente y Política Territorial para que, de conformidad con lo dispuesto en la Ley 4/1990 y en el Decreto 206/2003, proceda a aprobarlo inicialmente y someterlo a los trámites de información pública y audiencia previstos en dichas disposiciones.

III. Remitir al órgano competente para la aprobación definitiva del expediente los informes emitidos por la Dirección de

bidaltzea: Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritza (I. eranskina) eta URA-Uraren Euskal Agentzia (II. eranskina). Ziurtagiri horiek erantsita doaz.”

Eta horrela jasota gera dadin, ziurtagiri hau egin eta sinatu dut, bilkuraren akta onetsi baino lehen, Vitoria-Gasteizen, 2016ko martxoaren 16an.

Agricultura y Ganadería (Anexo I) y por URA. Agencia Vasca del Agua (Anexo II), que se acompañan a la presente certificación.”

Y para que así conste, expido y firmo, con anterioridad a la aprobación del acta correspondiente a esta Sesión, en Vitoria-Gasteiz, a 16 de marzo de 2016.

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO LURRALDE ANTOLAMENDURAKO BATZORDEAREN IDAZKARIA
SECRETARIO DE LA COMISIÓN DE ORDENACIÓN DEL TERRITORIO DEL PAÍS VASCO

Izpta./Fdo.: Tomás Orallo Quiroga